

LEZO / Ipuin eta olerki sariak banatu dituzte. Bi lehiaketak kontuan hartuta 337 idazlan aurkeztu dira, orain arteko partaidetza kopururik handiena

Lorea Muguruza

XIII. Jon Garbizu Olerki Saria eta XIII. Lope Isastikoa ipuin Sariak banatu zituzten atzo Andreone Udal Liburutegian. Sei urtetako gazteetatik hasita, 14 urtera artekoak izan ziren bertan. Lehiaketetako arduradunen esanetan, inoiz izandako arrakastarik handiena izan dute lehiaketako partaide kopuruari dagokionean. Lau maila desberdinak kontuan hartuta 337 idazlan aurkeztu dira, orain arteko partaidetza kopururik handiena, hain zuzen.

XIII. Jon Garbizu Olerki lehiaketan lau gazte saritu dituzte, baina 12-14 urte arteko maila hutsik utzi dute, kalitate ezagatik.

XIII. Lope Isastikoa ipuin sarian, berriz, lau mailatan eman dituzte sariak. Bi generoen arteko desberdintasuna, ordea, agerian gelditu da berriz ere: 246 ipuin aurkeztu diren bitartean, 91 olerki besterik ez dira jaso.

Aurreko urtekoekin alderatuz

Bi lehiaketak orain 12 urte hasi ziren, baina lau urtez bertan behera gelditu ziren. Lehiaketei berriz ekin zitzaionean, ordea, ez zen erraza izan parte hartzea bultzatzea.

Herri Eskolako eta Pasaia-Lezo Lizeoko gazteei parte hartzeko deia luzatzean, aldiz, indartzen hasi ziren. Orain bi urte 273 lan aurkeztu ziren, aurten 64 gehiago.